

## ARABAKO ERRIOXA

### ARABA



#### A•41 Artadi lehorrak Arabako Errioxan

**I**zen generiko honek Navaridas, Leza eta Kripango guneeetako artadi txiki batzuk biltzen ditu. Klima mediterraneo tipikoa eta euri gutxi duen Arabako Errioxako jatorrizko landarediaren azken aztarnak dira; izan ere, zuhaitz-espezie hori eta lagun duen oihanpea ezin hobeki egokitu zaizkio klima horri.

Nekazaritza intentsiboak eskualdeko jatorrizko basoak aldatu ditu eta, beraz, gordeleku horiek balio izugarria hartu dute lekukotasunaren eta ekologiaren aldetik; eta are balio handiagoa, toki horiek gaur egun inguruko fauna mediterranearraren aterpe nagusia direla eta espezie horiek gure Erkidegoan benetan urriak direla kontuan hartzen badugu.

Babesteko neurriak ezinbestekoak dira gunehorietan, era askotako eraginaren menpe, partzela-bideez, hondakindegiz, futbol-zelaiez inguratutik... eta suteek mehatxaturik baitaude.



#### A•42 Lezako erkameztia

**A**ntzina Arabako Errioxako mendi-hegal freskoenak zirenak, Toloño-Kantabriako mendilerroaren oinaldean, erkametzen basoek estaltzen zituzten guztiz. Gaur egun zereala eta mahastia dira nagusi paisaian eta enklabe txikiak bakarrik ditugu gunehorretako jatorrizko landarediaren lekuko, esate baterako, Lezako erkameztia.

Espazio txiki horretan bizirik diraute hasierako erkameztiak eta espezie honek lagun duen oihanpeak, zuhaixka eta lahar joriekin. Baso-zati oso txiki horrek berebiziko garrantzia du gainera bertako faunarentzat, hurbileko soroetako hegaztien aterpe, elikadura eta etzaleku gisa.